

II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## AGURAINGO UDALA

## Alkatearen eginkizunak lehenengo alkateordearen esku uztea aldi baterako

Alkateak, 2024ko apirilaren 18ko 46/2024 Dekretuaren bidez, honako hau ebatzi du:

2024ko apirilaren 19an tokiko gobernu batzarra egin behar den unean Aguraingo udalerritik kanpo egongo naiz.

Beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.3 artikulua eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 44.1, 44.2, 47.1, 47.2 eta 48. artikuluek ezarritakoa kontuan hartuta, hau

## EBATZI DUT

I. Bakartxo Bravo Urbina lehenengo alkateordearen esku uztea alkatearen eskudantziak, nire ordezkari jardun dezan 2024ko apirilaren 19ko tokiko gobernu batzarrean, ez bainaiz Aguraingo udalerrian egongo.

II. Dekretu hau Bakartxo Bravo Urbinari jakinaraztea.

III. Dekretu hau ALHAOn argitaratzea eta haren berri ematea udalbatzari, egiten duen hurrengo bilkuran.

Agurain, 2024ko apirilaren 18a

Alkatea

RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR